



PRENTSA OHARRA

NATIVIDAD RODRIGUEZEK ETA JOSEBA ARREGIK “TERRORISMOAREN BIKTIMEN ESANAHI POLITIKOA: ZUZENBIDEZKO ESTATUAREN ETA HIRITARREN BALIOA” IZENeko JARDUNALDIA AURKEZTEN DUTE.

- Fernando Buesa Fundazioak eta Aldaketa Plataformak antolatu dute, bi erakundeon artean lankidetzaz-hitzarmena sinatu ondoren.
- Jardunaldiaren xedea honakoa da: biktimak eta haien zeregin politikoa ez desagertzea jendarteko gaien artetik

Fernando Buesa Fundazioaren presidente Natividad Rodriguezek eta Aldaketa Plataformaren presidente Joseba Arregik aurkeztu dute prentsurrekoan “**Terrorismoaren biktimen esanahi politikoa: zuzenbidezko estatuaren eta hiritarren balioa**” izeneko jardunaldia.

Ekitaldi hau bi erakundeok elkarrekin antolatzen duten lehena izango da, lankidetzaz-hitzarmena sinatu ostean. Hitzarmen honetan, Fundazioa eta Aldaketa bat datoz haien helburuen artean honakoak daudela esaterakoan: terrorismoaren gaitzespen aktiboa eta biktimen oroitza-pena aldarrikatzea, euskal gizartearen aniztasuna estrukturala eta murrizgaitza delako uste osoa, eta autogobernuaren defentsa Konstituzioaren eta Estatuaren esparruan.

Bestalde, hitzarmenak, gizarte zibileko antolakunde desberdin eta askotarikoen artean ahaleginak bateratu beharra dagoela nabarmentzen du, bakoitzaren eraginkortasuna indartzeko eta desberdinen artean lankidetzaz eta adostasuna egin litezkeela frogatzeko.

Azkenik, hitzarmenak tolerantzia sustatu nahi du askotarikoa den gizarte batean, askotarikoa ideietan eta atxikimendu sentimenduetan bizikidetzaz esparru hitzartu eta egonkor batekin, ezen ez inposatutako esparru aldaezin batekin.

Izenpetutako hitzarmenari esker, Fernando Buesa Fundazioak eta Aldaketak ekintzak garatzeko erabakia hartu dute honako balioak sustatzeko: hiritartasun kontzeptuaren hedapena eta gogoeta, zuzenbidezko estatuaren defentsa hiritartasunaren berme gisa, eta askatasun, justizia, berdintasun, elkartasun, tolerantzia, heziketa eta bakearen kultura bultzatzea.

Beste alde batetik, terrorismoaren biktimen oroitza-penari eusteko konpromisoa hartzen dute, eta erabat arbuiatzen dituzte terrorismoa, fanatismoak eta desberdina denaren baztertzeko mota guztiak.

Halatan, bada, “**Terrorismoaren biktimen esanahi politikoa: zuzenbidezko estatuaren eta hiritarren balioa**” izeneko jardunaldiak, ETaren amaieraren horizontea



iritzi publikoarengan ezarri den momentu konplexu, itxaropentsu eta arretatsu hauetan biktimak ekarri nahi ditu gogora, honek guztiak dakartzan erronkekin.

Jardunaldia datorren **ostiralean, urriaren 28an, izango da egun osoan Bilboko Ercilla hotelean**. Bertan parte hartuko dute **Joseba Arregik**, Aldaketako presidentea, **Maite Pagazaurtundua**, Biktimen Fundazioko presidentea, **Hermann Tersch** kazetari eta idazlea, **Antonio Elorzak**, katedradun eta artikulugileak eta Auzitegi Nazionaleko magistratu **Javier Gómez Bermudezek**, maiatzaren 11ko atentatuen sumarioko arduradunak.

Antolatzaileen esanetan, *“gure asmoa da biktimak eta haien zeregin politikoa ez desagertzea jendarteko gaien artetik. Gure nahia litzateke, orobat, gizarteak berak duen aniztasunaren ondorioz elkarteen artean izaten diren desadostasunak gainditzea. Izan ere, askoz gehiago da batzen gaituena, banatzen gaituena baino.”*

Hartara, bada, Aldaketako eta Fundazioko arduradunen iritzian, *“urrundu egin behar dugu biktimen manipulazio alderdikoiaren arriskuetatik eta, era berean, alendu ETaren desagerpenaren helburu goragokoaren aurrean biktimak oztopo izan daitezkeela pentsatzearen tentaziotik.”*

Ostiralerako, urriaren 28rako, antolatutako jardunaldian ETaren biktimez hitz egingo da, eta errealitate hau nazioarteko testuinguruan eta Europako historian kokatuko da.

EGITARAUA

9:30 Aurkezpena.

9:45 Biktimen oroitzapenaren erakundetzea. Hizlaria: Joseba Arregi (EHUko irakaslea).

10:45 Biktimizazio bikoitza. Hizlaria: Maite Pagazaurtundua (Terrorismoaren Biktimak Fundazioko lehendakaria).

12:15 Totalitarismoen biktimak: Europaren oroimena. Hizlaria: Hermann Tersch (kazetaria eta idazlea).

16:30 Islamismoa, komunitateko abertzaletasun gisa: erantzun demokratikoa. Hizlaria: Antonio Elorza (Pentsamendu Politikoen Historiako katedraduna, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean).

17:30 Politika eta biktimen oroitzapena: Justiziaren zeregina. Hizlaria: Javier Gomez Bermudez (Audientzia Nazionaleko magistratua).

Gasteiz, 2005eko urriaren 25

Informazio gehiagorako: Jose Gordejuela . 944790880